

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

*Behin betiko onespena ematea «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketari.*

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hogeita batean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu du:

**Lehena.** Behin betiko onespena ematea 24 lurre esparruko «24.1 lurramendi Pasealekua» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketari (2024ko azaroaren 29an aurkeztutako dokumentuei).

**Bigarrena.** Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Era berean, interesdunen eskura jartzea udaleko egoitza elektronikoa.

**Hirugarrena.** Erabakia interesdunei zein eragindako lursailen jabeen zuzenean jakinaraztea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsu hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua aurkez dezake Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsua aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsuari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsu hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Tolosa, 2025eko urtarrilaren 23a.—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua. (525)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Aprobación definitiva de la primera modificación del Proyecto de Urbanización del subámbito «24.1 Paseo lurramendi».*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día veintiuno de enero de dos mil veinticinco, ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

**Primero.** Aprobar definitivamente la primera modificación del Proyecto de Urbanización del subámbito «24.1 Paseo lurramendi» del ámbito 24 lurre (documentos presentados el 29 de noviembre de 2024).

**Segundo.** Publicar el acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Asimismo, se pondrá a disposición de las personas interesadas en la sede electrónica municipal.

**Tercero.** Notificar directamente el acuerdo tanto a los interesados como a los propietarios de los terrenos afectados.

El presente acuerdo es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrán interponerse los siguientes recursos:

Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Tolosa, a 23 de enero de 2025.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (525)